

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2023ko maiatzak 12 - 1270 zenbakia

TANTANEZ TANTAN EUSKARA DENON ESKU

Transitions

EGUZKI IZPIEKIN ILUNTZEN DIREN
LENTE BERRITZAILEAK

%20ko
DESKONTUA



Kontaktatu optikaz lanpainaren zuzendaririk.

Bidebarrieta, 2
943 20 05 22
EIBAR



eskatu hitzordua

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua



Eibarko Musika Eskola
Escuela de Música J.B. Guisasola



EIBARKO MUSIKA ESKOLA

Instrumentuak Musika Taldeak
Koruak Musika Hizkuntza Musikoterapia
Musika eta Mugimendua (4-5-6)
Musika helduentzat

eta askoz gehiago:
4 urtetik aurrera, adin mugarik gabe!

Ezagutu gaitzazu hemen:

facebook.com/eibarkomusikaeskola
instagram.com/eibarkomusikaeskola
youtube.com/@eibarkomusikaeskola

Harremanetarako:

musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus
943702725

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Euskelga folk musika taldeak kontzertua eskainiko du bihar, 21:00etan, As Burgas Galiziako Etxeak antolatzen duen Dia Das Letras Galegas jaien barruan. Zenbait urtez geldirik egon ondoren, taldeak martxa berria hartu du eta hainbat kontzertu eskainiko ditu udaberrian eta udan zehar.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Astean esanak



Adimen Artifizialeko sistema indartsuak bakarrik garatu beharko lirateke ziur gaudenean haren ondorioak onak izango direla eta bere arriskuak kontrolatuak. Konturatu bainaiz nik garatzen lagundu ditudan programak oso zaila dela kalterako ez erabiltzea. Kontsolamendu bakarra dut, ohiko aitzaki bezala erabiltzen duguna: nik ez banu asmatuko, beste batek egingo zukeen. Berehalako arriskuaren artean internet-en dauden testu, argazki eta bideo faltsuak aipatuko nituzke, jendeak ez dakielako desberdintzen gizaki batek egin ditzakeen batengatik. Lanpostuak desagertzeko arriskuarekin batera, erreminta horiek gu baino intellegenteagoak bihurtu daitezke. Horretarako 40 urte beharko zirela uste banuen ere, onartu behar dut okerrenbidea. Horregatik, aurrera egin baino lehen ziur egon behar gara teknologia horiek kontrolatzeko gauza garena.

GEOFFREY HINTON, adimen artifizialaren "aita"

Jendeak gu bezain beste sinesten badu emakumezkoen txirindularitzan arrakasta ziurtatua dago. Ez nuke esango jendeak ez duela sinisten, baina bai ez duela arriskatu nahi. Gizonezkoen txirindularitza babestearren jasotzen duzunera ez bada iristen ere, iritsiko da; emakumezkoentzat kirolak aproposena delako. Gu prest gaude probak antolatzeko, baina besteon laguntzaren premia dugu; ezin dugu lan hori guk bakarrik egin. Emakumezkoen txirindularitza bultzatzea ezin delako zeozer iragankorra izan, gaur modan dagoelako bultzatu eta gero paso egin. Aurretik ere zeinek egin du guk Eibarren baino saiakera gehiago? Debarrenako nesken taldea hor ibili zen urteetan.

JULIAN ERASO, OCETAko zuzendaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OPAKIZUN → Opari. "Eratzun hau, nere maition opakizuna".

OPARO → Eskuzabal. "Oparo eskiñi zeskun etxian eban gutzia".

1970

Beorlegui eta Txopitea, Astelena tabernan

Plazaolaren estudioko argazki honetan Fernando Beorlegui margolaria eta Daniel Txopitea artista agertzen dira, Estaziño kalean dagoen Astelena tabernan. Horman dauden lanak beraienak dira.



Farmaziak

- BARIXAKUA 12**
 - EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)
 - ZAPATUA 13**
 - EGUNEZ | Castaño** (J. Etxebarria, 7)
 - DOMEKA 14**
 - EGUNEZ | Morgado** (San Agustin, 3)
 - ASTELEHENA 15**
 - EGUNEZ | Castaño** (J. Etxebarria, 7)
 - MARTITZENA 16**
 - EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
 - EGUAZTENA 17**
 - EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)
 - EGUENA 18**
 - EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)
 - BARIXAKUA 19**
 - EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)
- GAUEZ BETI**, 2023an,
Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

| | |
|--|-----------------------------|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa | 943 70 84 24 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Kirol Patronatoa | 943 20 32 40 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 900 17 11 71 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Eibar Ospitalea | 943 03 29 00 |
| Mendaro ospitala | 943 03 28 00 |
| Anbulategia | 943 03 25 00 |
| Torrekoa | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 944 33 33 33 |
| Lurraldebus | 900 30 03 40 |
| Pesa | 900 12 14 00 |
| Taxiak | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea | 943 70 08 28 |
| Alkohol. Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon / Alateen | 650 26 59 63 |
| Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak) | 699 37 75 20 |

Hildakoak

- **Juan Carracedo Prieto**. 79 urte. 2023-05-04.
- **Teodoro Rubio Alonso**. 89 urte. 2023-05-08.
- **Josefa De la Vega Taborga**. 87 urte. 2023-05-09.

Jaiotakoak

- **Muhammad Hashir**. 2023-04-26.
- **Resham Bahadur Pandit**. 2023-04-30.



Osakidetzarekin dauden arazoak konpontzeko eskatu diote Sagarduri

Osasungintza publikoaren defentsan eta osasun sistemaren pribatizazioaren kontra, eibartar mordo bat zuten zapatuan egindako manifestazioak. Amaieran, mobilizazioa deitu zuten Eibarko Pentsionista Taldeak, Ernaik, Matrakak eta Naluak sinatutako idatzia irakurri zuten, Eibarko anbulatorioko arduradunei eskura eman aurretik. Gozzone Sagardui Osasun sailburuari zuzendutako idatzia osasungintza publikoaren alde mobilizatzerara

man dituen arrazoiarekin hasten da: “Eibarren ez ezik, gure eskualde osoan Osakidetza izaten ari den hondoratzea salatzen”. Sailburuari bertan argi esaten diotenez, “zu zara, gure ustez, gertatzen ari denaren erantzule nagusia”. Gauzak horrela, arazoari konponbidea emateko pribatizazioa ez dela aukera argi laga nahi diote Sagarduri, aukera bakarra “osasungintza publiko duin eta unibertsala” dela gaineratuta.

Resort lantegiko beharginek greba mugagabea hasiko dute astelehenean

ELA sindikatuak jakinarazi duenez, Manufacturas Resort enpresan greba mugagabea deitu dute, “soldata igoera duin bat exijitzeko”. Aurreko astean egindako langile asanbladak, “enpresaren jarraera eta negoziatzeko asmorik eza” ikusita, maiatzaren 15etik aurrera greba mugagabea deitzea erabaki zuen. Azitaingo poligonoan dagoen enpresan 22 langilek egiten dute lan, eta malgukiak egiten dituzte. Sindikatuko ordezkariak

esandakoari jarraituta, “enpresak onartu duenez, lan karga eta irabaziei dagokienez, historikoak izan diren bi urtetatik gatoz. Egoera honen baitan, 2023rako soldata igoera baten negoziaketa abiatu genuen orain dela aste batzuk, baina negoziaketa blokeo puntu batera iritsi da eta enpresak ez du konponbidea topatu nahi izan”. Hori dela eta, astelehenetik aurrera greba mugagabea joko dute langileek.



Bidezko Merkataritzaren inguruko jarduerak egingo dira bihar Untzagan

Maiatzeko bigarren domekan ospatzen den Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunaren harira, Proyde-Proega eta Egoaizia GKEk, beste batzuekin elkarlanean, bihar goizerako egitaraua prestatu dute, Untzagan, 10:00etatik 14:30era. Haurrentzako tailerra, Bidezko Merkataritzako produktuekin prestatutako janaria, zozketak eta beste hainbat jarduera egingo dira.



Eibarren Lehen Tokiko Energia Komunitatea sustatuko du Udalak

Ezohiko bilkuran, Udaltzatza aho batez erabaki du Udala bazkide sustatzaile gisa integratzea Eibarren Tokiko Energia Komunitatean (TEK Eibar). Erabaki denez, udaltitularitasuneko eraikinen hiru estalki erabiltzen lagako zazio elkarte horri, energia sortzeko plaka fotovoltaikoak jartzeko. Horrela, Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin lankidetzan, Eibarren lehen Tokiko Energia Komunitatea sortzeko moduan da Udala.



"Tailerretik bulegora. Eibarko produktuak" erakusketa berria Museoa

Eguenean, maiatzaren 18an inauguratuko dute "Tailerretik bulegora. Eibarko produktuak" erakusketa Armagintzaren Museoa, 19:00etan. Erakusketa hau prestatzeko Museoa, biltegian gordeta dauden funtsak atera dituzte, El Casco, Simes, Laster, Triunfo Dex, Agra eta beste marka batzuek egindako produktuekin sasoi batean bulegoak nola hornitzen zituzten erakusteko. Irailaren 1era arte egongo da ikustera joateko aukera eta sarrera doan izango da.



Pentsioen erreformaren kontrako mobilizazioak egingo dira hiriburuetan

Astelehenean Eibarko Pentsionista Taldeak egindako elkarretaratzean jakinarazi zutenez, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Madrilgo Kongresuaren pentsioen erreformaren kontra protesta egiteko mobilizazioak deitu ditu bihar, hiriburu guztietan: Bilbon, 18:00etan Plaza Eliptikoan hasita; Donostian, 12:00etan Alderdi Ederren; Gasteizen, 12:00etan Artiumen; eta Iruñean, 11:00etan Udaletxe plazan. Komunikatu baten bidez salatu dutenez, "Martxoaren

16ko 2/2023 LEDaren Kongresuak pentsioen erreformaren bigarren zatia itxi ondoren, esan behar dugu hau ez dela orain dela bost urte baino gehiagotik kaleetan eskatzen ari garen erreforma. Hobekuntza batzuk jasotzen dituen arren, pentsioak eta eskubideak murrizten ari den erreforma-prozesu baten parte da. Gutxieneko pentsioen igoera ez da 1.080 eurora ere iristen". Ildo berean, maiatzaren 25ean mobilizazio bateratua egingo da Gasteizen.



Eibarko Ekialderako proposamenak azaltzeko eztabaida publikoa antolatu dute

Txontako La Plazoleta, Errebal Bizirik eta No al Paseo que nos entierra-Ekialdeari Bai auzo-elkarreetan maiatzaren 28ko Udal Hauteskuendetara Eibarren aurkezten diren alderdi politiko guztietako zerrendaburuak gonbidatu dituzte maiatzaren 17an (eguzatena), 19:00etan, Errebal Plazan egingo den eztabaida publikora.

Ordezkarri politikoen parte-hartzearekin egingo den ezta-

baidarako gaia ere zehaztu dute auzokideek: "Talde politikoen proposamenak Eibarko Ekialderako". Izenburu hori ipinita, Errebal, Jardañeta, Matsaria, Arraguetta, Bidebarrieta, Urkizu, Txonta, Barrena eta inguruko tokietarako talde bakoitzak dauzkan asmo eta proiektuak ezagutu nahi dituzte. Gaiak duen garrantzia dela-eta, eibartar guztiak gonbidatu nahi dituzte.



Bilduk ohartarazi duenez, Eibarko haurreskoletako plazak ez dira nahikoak herriko familien premiak asetzeko

Eibarko familien beharrak asetzeko haurreskola plaza nahikorik ez dago, Arantza Mata Eibarko EH Bilduren alkategaiak eta Gorka Errasti bozeramaileak ohartarazi dutenez. PSEren udal gobernuari “premiak eraikin berri bat Eusko Jaurlaritzaren esku uzteko” dei egin diote eta eraikin egokiena adosteko prest azaldu dira. Esan dutenez, “orain dago haurreskoletako matrikulazio epea zabalik, baina Eibarren errealitatea gordina izan daiteke familia askorentzat. Iaz, Eibarren eskain-

tzen diren 109 plazak urtarrilerako guztiz bete ziren eta familia askok ezin izan zituzten beraien seme alabak matrikulatu”. Gainera, EH Bilduk Eusko Jaurlaritzan bultzatuta, haurreskoletako matrikulen doakotasuna jarriko da indarrean, “eta honek eskarrian gorakada nabarmena ekarriko du. Haurreskola eraikin berri bat eskaini beharra dago eta, gainera, hezkuntzari lotutako gaien jarraipena egiteko Eibarko Udalean Hezkuntza Teknikari baten beharra dago”.

Udalari egin beharreko ordainketak Bizum bidez egiteko aukera ematen hasi dira

Udalaren zerga, ordainagiri, isun eta likidazioak ordaintzeko Bizum bidezko ordainketa-sistemaren aukera ematen hasi dira aste honetan. Beraz, eibartarrek aurrerantzean ordainketa horiek udal-webguneko “Tramiteak eta zerbitzuak” atalean kokatutako “Nire ordainketa: erreziboak, isunak eta likidazioak”

aukera bidez egin ditzakete. Behin barruan, erabiltzailea Euskal Administrazioaren ordainketa-pasarelara birbideratuko da eta, bertan txartelarekin edo online bankaren bidez ordainketak egiteaz gain, Bizum aukera hautatu ahal izango du, igorlea eta beste kontzeptuei buruzko datuak txertatu ondoren.

Eramateko.eus: taberna eta jatetxeetan janaria online erosteko plataforma berria

Eibar eta Debabarreneko dena, taberna, jatetxe eta establezimendu ezberdinek (batez ere janariarekin erlazionaturikoak) eskaintzen dituzten produktuak online, eramateko eta erosteko aukera ematen duen webgune eta erakusleho birtuala zabaldu berri du Miguel Loitxate eibartarrak: eramateko.eus. Eibar eta inguruko establezimendu gutxi batzuekin hasi dira lanean, “probatzeko eta elkarrekin ikasten joateko, baina gure helburua, Debabarrena eskualdeko eramateko janariaren eskaintza ahalik eta zabalena jasotzea da”. Etxeko janaria, gourmet erakoak, zizka-mizkak, hanburgesak... horiek osatzen dute eskaintza oraingoz.



Umeen bertso jaialdia datorren astean Coliseon

Amaña, Arrateko Andra Mari, La Salle, Iturburu, San Andres eta Aldatze ikastetxeetako LH5 eta LH6 mailtako ikasleen bertso jaialdia hartuko ditu Coliseo antzokiak datorren astean, martitzen, eguazten eta eguenean, 18:00etan. Ume bakoitzaren familiari bina sarrera banatuko zaizkio eta gainerako sarrerak leihatilan eta Kutxabanken egongo dira salgai.

AUTUAN

60 URTEKOEN BAZKARIA

1963an jaiotakoek bazkaria egingo dute irailaren 30ean. Joan nahi dutenek 85 euroko diru-sarrera egin beharko dute, Kutxabank-eko 20955035009122520024 zenbakian, izen-abizenak adieraziz (uztailak 30 baino lehen, gero kontua itxiko da eta). Eguerditik abiatuko den egitaraua presatzen ari dira: luntxa, taldeko argazkia, txikiteoa, bazkaria, eta festa Punto y Aparten. Izena emateko edo Informazio gehiago eskuratzeko: 1963eibar2013@gmail.com.

TRAFIKOA MOZTUKO DUTE

Asteburuan Dia das Letras Gallegas jaiak ospatuko direla eta, Urkizu pasealekuan, Bizkaiko noranzkoan, kalea trafikoa rentzat itxi egingo dute, maiatzaren 13ko (zapatua) 19:00etatik maiatzaren 14ko (domeka) 03:00etara.



San Isidro eguna ospatzeko egitarau zabala antolatu dute astelehenerako Arraten

Astelehena San Isidro eguna dela ospatzeko, Arraten egun osoa jai-giroan pasatzeko moduko egitaraua antolatu dute Eibar, Elgoibar, Sorluze eta Mendaroko Udalek, Itziariko Entitate Txikiak eta Debemen elkarteak. Goizeko 11:00etan hasiko dira ospakizunak, bertsolarien eta Oier Baltzola eta Unai Andonegi trikitilarien parte-hartzea izango duen mezarekin. Jarraian, prozesioa eta aureskua egingo dira, Kezka dantza taldearen eskutik eta, ondoren, Debabarreneko produktuen

dastaketa hasiko da. Herri-kirolak eguerdian, 12:30ean, izango dira: San Isidro XIX. Aizkolaria Txapelketa jokatzeaz gain, harrijasotzaileen saioa ere egingo da santutegiaren atarian. Baserritarren patroien omenezko bazkaria 14:30ean hasiko da, Tiro Pitxoi jatetxean. Bazkalostea girotzen bertsolariak eta trikitilariak arituko dira. Eta, eguneko egitaraua biribiltzeko, idemak hartuko ditu probalekuak, 17:30ean, Oliden, Soarte eta Kamiñoiko idiekin.

FUNEUSKADI
Gizarte-bizitza

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO DE EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

| | |
|---|--|
| <p>Eibar: Otsola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p> | <p>Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ernuako bulegoa: Marqués de Valdeispina, 16</p> |
|---|--|

Eibar · Elgoibar · Ernuak · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugaite · Santurtzi · Basauri · Galdakao

LEHEN ORAIN

garbiBox
eco eco garbiketa

Urtzi Antxustegi
(688 649 837)

09:30/19:00 EROSKI-n

kili klik
argazkilaritza fotografia

646114443 · kili_klik

kilimaksortzen@gmail.com · Indalecio Ojanguren 1

Baserritarrak pozik euren bizitzak errazten dituzten bideekin



Kaletarrei galdera: Nola moldatu zinatekete zuen etxeko atarira heltzeko biderik ez balego? Edo bidea oso egoera txarrean balego? Edo espaloiak hondatuta baleude eta zuek bertatik pasa ezinik? Eibarko baserritarrek antzeko egoerak bizi izan dituzte eta urtero egin behar izan dituzte eskaerak baserrietarako sarbideak konpontzeko, baina egoera zertxobait aldatu da orain.

Joan den azaroan Udalak eta Andirao elkarteak akordioa lortu zuten datozen bost urteetan 1.750.000 euroko partida jasotzeko (hau da, 350.000 euro urtean). Inbertsio horren helburu nagusia landa-inguruneko pistak konpontzea da, baina baserritarrentzat ez da hori bakarrik, zerbait gehiago da.

Lourdes Urzuriaga eta Enrique Atxa Andirao elkarteko presidente eta presidenteordearekin elkartu gara, eta Udalarekin sinatutako akordioaren inguruan jardun dugu eurekin. “Guretzat oso garrantzitsua izan da akordioa lortzea”, esan digu Urzuriagak.

Presidenteak bideen egoeraren berri eman digu: “Baserrietako bideak oso egoera txarrean daude. Batzuk hormigoituta daude, baina hormigoia hondatuta dago eta asfaltatzea komeni da. Bideak ez ditu Udalak egin, baserritarrek geure kabuz baizik, geure diruarekin. Bideak, normala denez, estuak dira, 3 metro ingurukoak, eta hortik pa-

satzeko tokia egin behar da. Areka gehienak hormigoituta daude, baina hondatuta daude asko”.

Arazo horiek aspalditik datoz eta, orain arte, Andiraok urtero ematen zion horien berri Udalari, konpondu zitzaizkien. “Orain dela bi urte, adibidez, 125.000 euro jaso genituen. Zer egin dezakegu diru horrekin? Makinak mugitzeak bakarrik aurrekontuaren zati handi bat kentzen dizu”, azaldu digu. Beraz, diru “eskas” horrekin zer egin erabakitzeko, herriko bost bailaren artean azterketa egin eta premia gehien zuen lana egin izan ohi dute, besteak zain geratuz.

Andiraoko lagunek argi lagatzen dute, hala ere, eurek ez dutela dirua jasotzen eta horrekin nahi dutena egiten. “Udalean proiektuak aurkezten ditugu eta eurek dirua bideratzen dute horretarako”, presidenteak azaldu digunez.

la hiru aldiz gehiago

Orain dela bi urte, oster, Andiraok bost bailaretan zeuden beharren azterketa sakona egin zuen eta Uda-



Andirao elkarteko Lourdes Urzuriaga eta Enrique Atxa. EKHI BELAR

lari txostena aurkeztu zion. Euren kalkuluen arabera, 1.750.000 euro behar zituzten behar horiek konpontzeko eta Udalarekin negoziaketak hasi zituzten. Orduan bai, lortu zuten eskatutakoa jasotzea. “Bost urterako partida ziurtatu dugu eta, gainera, urte bakoitzean jasoko duguna ikusita, lehen urtero jasotzen genuenaren hirukoitza jasoko dugu gutxi gorabehera”, diosku Atxak. “Hori bai, kopuru hori orain dela bi urte egindako txosten horri dagokio eta harrezkero behar gehiago sortu dira, materialen prezioa igo da, eta abar”, zehazten du. “Dena dela, txostenean agertzen denaren zati garrantzitsu bat egiteko aukera izango dugu eta ez gara urtero eskean ibili beharko”, Urzuriagaren berbetan.

Bost urteko akordioa izanik, nolabaiteko lasaitasunez jokatzeko aukera ematen die baserriarrei. Ez bakarrik aipatutako lanak egiteko (bideak konpondu eta bideen segurtasuna bermatu), baizik eta elkarteak dituen beste behar batzuk asetzeko. “Batzuk uste dute hormigoiaz

bakarrik arduratzen garela, baina ez da hori bakarrik. Denok egongo gara ados norberaren etxera sarbidea edukitzea ezinbestekoa dela, ezta? Baina bestetik, beste zenbait asmo ditugu. Adibidez, baserrietako emakume nagusiei bideratutako ikastaroak emango ditu asteburu hauetan Andretxeak”, diosku presidenteak.

Erabakiak demokratikoki

Andirao elkartearen presidenteordeak, idazkariak eta diruzainak osatzen dute, eta gero, bailara bakoitzeko bi ordezkari daude. Elkarteak oso modu demokratikoan funtzionatzen du eta, hain zuzen ere, datorren martitzenean egingo dute batzarra Udalaren partidarekin egingo diren lehen ekintzak zehazteko. “Guk baditugu lehentasun batzuk, baina batzarrean erabakiko da zer egin bertan aurkezten diren proposamenen arabera”, azaldu digute. Bide berria hasi da baserriarrentzat.

Andirao elkarteak baserrietako bideak eta pistak hobetu ahal izango ditu Udalarekin lortutako akordioari esker

Datorren martitzenean batzarra egingo dute lehentasuna duten lanak zehazteko

“Esperientziak gauzak lasaitasunez aurrera eramaten laguntzen dit eta ilusioz ekin diot bide honi”

PEDRO LASKURAIN • San Andres elizako parrokoa



Joan den udazkenean Xabier Zubizarretak bere kargua laga ondoren, Pedro Laskurain izendatu zuten San Andres elizako parroko. Eibarren jaio eta Soraluzen hazi zen apaizak Nafarroa eta Gipuzkoa inguruan egin du ibilbidea, eta orain, bataioa jaso zuen toki berean da parroko.

Laskurainek ondo hasi du bidea, baina oztopo batzuk aurkitu ditu bidean. Harrikoskorrak hain zuzen ere. Teilatutik harri bat erori zen berrizten zenbiltzan organoaren gainera eta, elizaren egoera ikusita, bertan egiten diren ospakizunak bertan behera laga dituzte momentuz.

Nolako izan dira lehen hilabete hauek San Andres elizako parroko moduan?

Pozgarriak. Azken bi urteetan Zumaian egon nintzen eta eibartar asko gerturatzen da bertara, udan batez ere, eta pozgarria zen han eibartarrak ikustea, eibartar sentitzen naizelako asko. Orain, Eibarrera etortzea tokatu zait eta ni pozik. Toki ezaguna da eta etxean bezala sentitzen naiz. Jendearen harrera ona izan da gainera.

Jaioterrian parroko izatea proposatu zizutenean, zer sentitu zenuen?

Ilusio handia hartu nuen. Niretzat Eibar etxea da, eibartar asko ezagutzen ditut eta, gainera, San Andres nire parrokia da. Hau da, Eibarko amaetxean jaio nintzen eta gurasoek parrokia horretan bataiatzea nahi izan zuten. Beraz, ‘apaiz piloia’ naiz. Bataioa jaso zuen tokian parrokoa denari esaten zaio ‘apaiz piloia’. Horrela, jasotako fedearengatik esker ona emateko aukera daukat.

Zirkulua ixten duzu horrela?

Moduren batean bai. Denek ezagutzen dugu Don Antonio Beitia, bizi guztian hemen egon eta jubilatu zen apaiza. Ez dakit noiz arte egongo naizen hemen eta egia da gaur egun, apaiz gutxi gaudenez, asko mugitzen garela toki batetik bestera, baina gutxienez sei urtez egongo naiz eta ikusi beharko da gero.

Nolako bidea egin duzu Eibarrera itzuli arte?

Soraluzen bizi izan naiz jaio nintzenetik. Baserrian bizi ginen, baina amak denda zuen eta bizitza kalean egiten genuen. Soraluzeke ikastolan eta Bergarako institutuan ibili nintzen, eta Eibarko Unibertsitatean ingeniari itzuli nintzen. 23 urterekin seminariora joan nintzen. Lehendabizi Toledora, eta gero Iruñara. 2000. urtean apaiztu nintzen eta apaiz naiz harrezkero. 11 urte egin nituen Nafarroan (Beran, Zugarramurdi, Urdazubin, Olaztin eta Lesakan) eta oso jende ona eta jatorra aurkitu nuen. Oroitzapen onak ditut. 2011n, Gipuzkoara etorri nintzen, Zumarragara. Ezaguna nuen eta oso gustora egon nintzen bederatzi urtez. Gero, Zumaiara joan nintzen. Kostaldea ez nuen asko ezagutzen eta Zumaia oso herri polita da, jende jatorrarekin.



Bataiatu zen tokian da orain parroko Pedro Laskurain. EKHI BELAR

Zein asmorekin etorri zara Eibarrera? Zeintzuk dira zure helburuak?

Apaiz bezala ilusioz lan egitea arlo guztietan: umeekin, gazteekin, familiarekin eta jende guztiarekin. Elizbarrutia egiten ari dena jarraitzea da gure lana. 22 urte daramatzat apaiz bezala eta egia da orain ez zaudela hasierako pretentsio berekin. Hasieran asmo handiak dituzu eta gero, lurra hartzen duzunean, errealtatea nolakoa den konturatzen zara eta gauzak gehiago zehazten dituzu. Esperientziak gauzak lasaitasunez aurrera eramaten laguntzen dit eta ilusioz ekin diot bide honi. Gauza asko daude egiteko eta urte hauetan ikasitakoa ekarriko dut. Nire apaiz lekukotza eman eta jendearengandik hurbil egotea nahi dut. Hori bai, batzuetan asmo batzuk dituzu eta beste batzuk irteten dira. Harri bat jausten da eta plan guztia hankaz gora geratzen da. Baina tira, parrokiako bizitzak aurrera jarraitzen du.

Antonio Beitiak eta Xabier Zubizarretak itzala utzi zuten parrokiako bizitzan. Eurekin egoteko aukera izan duzue? Euren bidea jarraitzea nahiko zenuke?

Xabierrek urte asko egin ditu hemen eta legatua laga du. Etorri aurretik berarekin egon nintzen eta aurretik

“Nire apaiz lekukotza eman eta jendearengandik hurbil egotea nahi dut. Hori bai, batzuetan asmo batzuk dituzu eta beste batzuk irteten dira”

ere ezagutzen nuen. Berak hasitakoarekin jarraitzeko eta gehitzeko gogoz nago. Antonio Beitia, ostera, aspalditik ezagutzen dut. Apaiztu nintzenean, lehenengo meza San Andres parrokian eman nuen, eta Beitiak harrera egin ninduen maitasun osoz. Aspaldi jubilatzen eta orain Ermuan dago, eta askotan joaten naiz berarengana.

Orain dela hilabete batzuk teilatutik harri bat erori zen organoaren gainera. Nola gertatu zen?

Irailean etorri nintzen eta Xabierrek esan zidan organoa konpontzen ari zirela. Gabonetarako organoa berriztuta egotea zen ideia, baina pandemia dela-eta

Informazio gehiago
elkartearen webgunean:



data apiril ingurura atzeratu zen. Azaroan, Gipuzkoako Foru Aldundiak erretaula konpontzeko eta garbitzeko dirua emango zuela esan zigun eta aprobetxatu egin genuen. Lanak abenduaren erdialdean amaitu zituzten eta poz-pozik geunden, organoaren konponketa ere amaitzear zegoelako, eta bat-batean, urtarrileko gau batean, koruko bobedako nerbio batetako 50 kiloko harri bat organoaren gainera erori zen. Hurrengo egunean arkitektoak etorri ziren eta bobedetan arazoak zeudela ikusi zuten. Harria bere tokian jarri zuten, baina Aitor Zubia arkitektoari elizako teilatuen egurrezko egituraren estudioa egiteko eskatu zitzaion. Estudioak egitura oso gaizki zegoela ondorioztatu zuen eta ezin zuen ziurtatu arriskurik ez zela egongo. Beraz, bere iritziz, eliza itxi egin beharko litzateke ospakizunetarako. Gainera, elizako egurrezko egiturari behin betiko konponbidea eman behar zitzaiola ondorioztatu zuen. Hau da, berria egin, eta horrek denbora asko eskatzen du. Diru asko da eta finantzazioa lortu behar da, baina orain gabiltza proiektua zehazten eta kontuak egiten.

Organoan egiten ziharduten lanak bertan behera geratuko dira?

Bai, lanak eten egin beharko dituzte. Harria hor erori zen eta organogileek bertan egiten dute lan. Beraz, lan hori laga behar izan genuen lehendabizi, segurtasun kontuengatik. Lanekin jarraitu ahal izango balitz ere, ez luke zentzurik izango organoa konpontzea teiltatua egin aurretik, gero hautsak eta bestelakoak sortzen baitira. Beraz, lehenik eta behin teiltatua konpondu behar da eta gero organoa. Hori ez da arazo nagusia, teiltatua baizik.

Orain nola moldatuko zarete elizako ospakizunetarako? Izan ere, orain jaunartzeen eta ezkontzen sasoia da, ohiko mezez gain.

Sasoi berezia tokatu zaigu, egia esan. Tenplua zeharo itxita dago orain, ez dugu ezer egiten hemen. Parrokia-ko lokaletan, ostera, ez dago arazorik eta katekesiarekin eta bilerekin jarraitzen dugu. Astegunetako meza, 19:30ekoak, San Agustineran eraman dugu, baina hile-



“Asmoa da astegunetako mezetarako San Andres elizako koroaren azpian tokia prestatzea”

tak ezin dira han egin. Astero 3-4 hileta egon ohi dira eta askok San Andresen egin nahi izaten dute (urtean zehar 160-170 hileta egiten dira). Eliza guztia behar izaten da horretarako, bete egiten delako, eta orain herriko beste elizetan banatu ditugu: San Piora edo Karmengo elizara. Ni Karmengo elizako parrokoa naiz baita ere eta pentsatzen dut ospakizun handiak hara eramango ditugula. Datorren larunbatean jaunartzeak tokatzen zaizkigu eta Karmengo elizan egingo ditugu. Hori bai, bi ospakizun egin beharko ditugu. Izan ere, 48 ume dira eta bi taldetan banatu behar izan ditugu. Gero, asmoa da astegunetako mezetarako San Andres elizako koroaren azpian tokia prestatzea.



IMANOL MAGRO

Errepideak espaloi bihurtu arte

Udalak ezagutzera eman berri duen arabera, aurki kaleen peatonalizazio egitasmo berri bat abian jarriko du. Toribio Etxebarrian eta Zuloagatarrenen egin bezala, oinezkoentzako egokitu nahi du anbulatorioaren aurre aldea eta Aldapatxoko ingurua. Udal hauteskundeen berotan eginiko iragarpen bat izatearen itxura guztia du, baina berriz ere azaleratu dira kaleak autoentzako ixteak eta oinezkoentzako egokitzeak sortzen dituen aldeko zein aurkako iritziak.

Ez dut nire burua ezkutatu, aldekoen lubakian nago. Calbeton kalean jaio izanak eta kale hori asteburuetan ixten hasi zirenean gure bizi kalitateak izan zuen hobekuntza ondo dut gogoan. Are gehiago, ez dut ulertzen zergatik oraindik ere mugatzen den bakarrik asteburuetara. Badakit Eibarren kaleak oinezkoentzako bihurtzea ez dela erraza, Alde Zaharrik ez izatearen, autobus geltokiaren kokapenaren eta errepideekiko menpekotasunaren ajeetako bat da. Erraza ez izateak, baina, ez du ezinezko bihurtzen

Are gehiago, nire ustez peatonalizazio prozesuak ez lirateke erdi aldera eta asteburuetara bakarrik mugatu beharko. Auzoek ere ondo merezia dute arnasa. Asfaltoa espaloi bihurtu eta errepidea oinezkoen esku jartzeak bizi kalitateak hobetzen ditu, eta egungoak motz gelditzen dira. Amañan hasi, eta Ego Gainen behera Errebaleraino iritsiko litzatekeen espaloi handi bat ikustearen itxaropena ez dut inoiz galdu, eta bi Untzaga plazak bakarrean elkartuko litzukeena.

Udal hauteskundeen bezperetan alkategaiek hiritarren eskaerak entzuteko bilerak antolatzen dituzte. Bada hemen doa nirea: ausardia eskatuko nieke kaleak oinezkoentzako bilakatzeko erabakietan. Aparkalekuak kentzeak beti ematen du beldurra, eta egon daiteke bere burua kaltetua ikusten duenik, baina beti lehenetsi behar da onura kolektiboa. Gainera, Euskal Herri osoan ia ez da kasurik egon, non hiritarrek atzera egin eta oinezkoentzako bihurtutako kalerik errepidera itzultzeko eskatu dutenik. Apustu segurua da.

“Calbeton kalean jaio izanak eta kale hori asteburuetan ixten hasi zirenean gure bizi kalitateak izan zuen hobekuntza ondo dut gogoan”



Euskararen olatua datorren barixakuan ailegatuko da Eibarko kaleetara



Maiatzaren 19an, gaur zortzi, ailegatuko da Eibarrera Tantan ez Tantan, bazterrak euskaraz bustiko dituen euskararen aldeko olatua. Euskalgintzako mahaia osatzen duten taldeek mimo handiz antolatu dute aurten ere euskararen aldeko ekimen hau, eta dei egiten die herritar guztiei bat egin dezaten Urkizu eta Untzaga elkartuko dituen giza katearekin: “Eskutik eskura euskaltzale guztion artean eramango dugu euskaraz eta ilusioz beteriko gantxilla”.

Datorren barixakuan arratsaldeko 19:00etan ekingo zaio Tantan ez Tantan bi urterik behin Eibarko euskalgintzako taldeek antolatzen duten ekimenari. Urkizuko iturrian gantxilla edo botijoa urez bete-eta, “eskuz esku eramango dugu Untzagaraino, euskararen olatua irudikatuz. Nik eman, zuk jasotzeko, niri ere eman egin didatelako, guztiona delako, gurea delako. Transmisio-katea gara gu eta horrela eutsi behar diogu euskarari, bete-betea”, diote antolatzaileek.

700 lagun ibilbidea betetzeko

Urkizuko iturritik Untzagara arteko ibilbideak kilometro inguru duela kalkulatu dute antolatzaileek eta, lana errazte aldera, hamabi zatitan banatu dute aurten ere ibilbidea: “Urkizu-Ibarku-

rutze, Ibarkurutze-anbulatorioa eta anbulatorioa-Untzaga, horiek dira tarte nagusiak; baina horien barruan hainbat azpitarte antolatu ditugu. Gonbidapenak egiterako orduan talde edo elkarte bakoitzari tarte bat eman diogu, tarte bakoitzean jendea egongo dela ziurtatzeko; gure kalkuluen arabera 50-60 lagun beharko ditugu azpitarte bakoitza betetzeko, eta 700 lagun ibilbide osoa betetzeko. Ez da erronka makala”. Horregatik dei egiten diete Eibarko euskaltzale guztiei, “maiatzaren 19an ozen oihukatu behar baitugu eibartarrok euskaraz bizi nahi dugula”. Urtero moduan, aurten ere, soinean zerbait urdina eta koadrodun zapia eramatea eskatzen dute antolatzaileek. Urkizutik Coliseorainoko tartean egongo direnak 18:30 ingururako han egon beharko dute, katea ondo an-



Antolatzaileek eguaztenean aurkeztu zuten ekimena. SILBIA HERNANDEZ

tolatzeko, eta Coliseo eta Untzaga artekoak, berriz, 19:00etarako.

Euskal Jaia eta Serafin Basauri omenduak

Euskararen alde egindako lana eskertu eta aitortuko du aurten ere euskararen olatuak eta bi izango dira omenduak: “Batetik, Euskal Jaiak 58 urte betetzen ditu aurten, eta urte hauetan guztietan euskararen alde, euskal tradizio eta kulturaren alde egindako lana eskertu nahi diogu; eta, bestetik, aitortza berezia egingo diogu Serafin Basauri euskaltzaleari, euskara eta euskal kultura bultzatzeko eta zabaltzeko egindako lanarengatik. Euskararirakaslea izan zen, Ikastolaren bultzatzaileetako bat ere bai, euskararen inguruan Eibarren argitaratu diren liburu askotan dago Serafinen eskua, herri hizkerak jasotzen dituen Badihardugu Elkarteko buru...

Ondo merezitako errekonozimendua eskaini nahi diogu”.

Animazioa eta “zirikatzailea” ibilbide osoan

Euskararen olatuak jai-giroan beteko du ibilbidea: “Eibar BHIKO hankapaloek irekiko dute aurten ere katea, Musika Eskolako trikitilariak joango dira gantxillaren ondoan, eta Ustekabek itxiko du kalejira”. Berrietasunik ere izango da: “Zirikatzailea ibiliko da ibilbidean atzera eta aurrerajendea katean sartzera animatzen, giza kateko maila guztiak bete nahi ditugu-eta”. Antolatzaileen azkeneko eskaera euskaltzaleontzat: “Ez ahaztu zerbait urdina janzea eta lepoan koadrodun zapia jartzea!”.

Euskaltzaleok aukera bikaina dugu Eibarren euskaraz bizitzeko dugun eskubidea ozen aldarrikatzeko. Sartu zaitezte ibilbidean eta izan zeuk ere Tantan!

Aurten barixakuan, maiatzak 19, iritsiko da olatua Eibarrera

Gantxilla 19:00etan irtengo da Urkizuko iturritik eta Eibarko erdigunea zeharkatuko du Untzagara heldu arte

Txirrindularitza Solidarioa Euskal Jaian

Festa giroa gailenduko da Euskal Jaian, baina solidaritateak tokia izango du egitarauan. Izan ere, Eibar BHIko ikasleek Txirrindularitza Solidarioa izeneko ekimena jarri dute martxan aurtengo ikasturtean eta hilaren 20an, zapatuan, izango dute herritarrek berarekin bat egiteko aukera. Ondo luzatu eta berotu, zuen kilometroak ezinbestekoak izango baitira!

Eibar BHIk 1.000 ikasle inguru ditu (400 DBHko 1. eta 2. mailan, eta 600 DBHko 3. eta 4. mailan eta Batxilergoan). “Beraz, maila akademikoari dagokionez, Eibar BHIin dagoen espektroa oso zabala da”, azaldu digu Iñigo Magunazelaia zuzendariak. “Zoritzarrez, gero eta baliabide gutxiago ditugu behar bereziak dituzten ikasleei arreta emateko. Diagnostikoa duten ikasleentzako badaude laguntzak, baina beste batzuk diagnostiko barik datoz edo bestelako arazoekin, denek ez dutelako abiadura berdina. Hori Lehen Hezkuntzan lausotu egiten da, baina DBHra heltzen direnean alde horiek areagotu eta gabeziak agerian geratzen dira”, azaldu digu.

DBHko lehen urteetan hori nabari dute irakasleek eta ikasle talde batek titulua lortzeko arazoak izango dituela ikusten dute. Beraz, egoera horri aurre egiteko, 15 ikaslerekin Eraikiz izeneko taldea osatu dute aurtengo ikasturtean.

Eibar BHIko Eraikiz taldeak jarri du martxan Txirrindularitza Solidarioa ekimena

“Ez dute diagnostikorik, ez osasun mentaleko arazorik, ez horrelako ezer; baina arazo kognitiboak dituzte, etxean arazoak dituzte edo horrelako kontuak”, diosku zuzendariak. “Eurei bultzada ematea da nahi duguna (askok goxotasuna besterik ez dute behar, adibidez), ikasten jarraitu dezaten”.

Hori lortzeko, hainbat proiektu eta erronka egin dituzte urtean zehar. “Horien bitartez, edukiak minimoetan lantzen dituzte, aurrera egiteko gutxienekoa lortu ahal izateko”, esan digu Magunazelaiak.

Ahalik eta kilometro gehien

Txirrindularitza Solidarioa da Eraikiz taldeak martxan jarri duen proiektuetako bat. Baina, zertan datza? Maiatzaren 20an, Euskal Jaiko zapatuan, Toribio Etxebarria kalean, txirrindulari profesionalek eta profesional ohiek babestutako zortzi arrabola adimentsu jarriko dituzte (oraindik ez dute zehaztu zein txirrindulari etorriko diren) eta, Bkool programa erabiliz (txirrindularitza simuladorea), ahalik eta kilometro gehien egitea da helburua. Horretarako, 10 minutuko tarteak erreserbatu ahal izango dira, dohainik, eta betetzen ez diren ordu tarteetan berriz parte hartu ahal izango da. Gainera, egun horretan herri kirolak egingo direnez, kirolariak arrabolan jarriko dituzte jo eta su aritu daitezzen.

Egindako kilometro bakoitzeko, Rural Kutxak euro bat emango du ekimenerako. Gainera, egunean bertan herritarrek eskainitako borondatea eskertuko dute antolatzaileek eta BIZUM bitartez



Eibar BHiko Eraikiz taldea Abraham Olano txirrindulari ohiarekin. EIBARBHI

ekarpenak egin ahal izango dira. Jasotako dirua Gautena autismoaren espektroko nahastea duten pertsonen senideen elkarteari emango zaio.

Dena, ostera, ez da kilometroak eta dirua ematea izango. Izan ere, antolatzaileek hainbat zozketa egingo dituzte. Horrela, bi euroko txartela erosiz, Zycle arrabola adimentsua, Baque kafearen loteak, Orbearen kamisetak, Rural Kutxa taldearen maillotak, Etxeondoren materiala, eta GESen kaskoa eta poltsa irabazi daitezke.

Atzeko lanketa

Hilaren 20ko ekimena Eraikiz taldeak egindako lanaren izebergaren punta besterik ez da. “Hasteko, Udalean egon ginen gure asmoen berri ematen eta egiteko baimena eskatzen. Gero, ekimena aurrera eramateko babesle bila ibili gara hainbat enpresatan (Alzola, Rural Kutxa, Zycle, Baque, Eroski, Orbea, GES eta Etxeondo). Horretarako, idatziak egin dituzte eta ma-

Ekimenean jasotako dirua Gautena elkarteari emango zaio



tematika landu dute; eta zapatuko ekintzan datuak jasoko dituzte eta fisika landuko dute. Horrela, edukiak beste modu baten landu ahal izan ditugu ikasleekin”, azaldu digu zuzendariak.

Ikasleek “oso ondo” hartu dute horrelako proiektu baten parte hartzeko aukera. “Proiektuaren eta Eraikiz taldearen inguruko balorazioa egin dugu ikasleekin eta familiekin, eta oso harrera positiboa izan dute. Beraz, hurrengo urteetan horrelako lan dinamikekin jarraitzea da gure asmoa, baina horretarako Hezkuntza Sailak horren balioa ikus behar du”, Magunazelaiaren berbetan. “Ikasle guzti-guztiekin agian ez ditugu helburuak lortuko, ez dugu Harry Potterren makilatxo magikoa, baina horrelako ekimenekin erakusten dugu egoera horretan dauden ikasle gehientzat badagoela irtenbidea”, gehitzen du.

Informazio gehiago behar izanez gero, eibarbhi.hezkuntza.net helbidean aurkitu dezakezue.



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com



**GASTESI
Hortz-Klinika**
Errebal, 9-1.c
943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
Oñateko etxea
- INHIBITERRIA
- KIBEL LENTAK
- Puntako eta TRATAMENUAK
- K. nerbioak + DESPESKEDURA

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**
ARRAGUSTA, 20
Tlf: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

arat.
HORTZ KLINIKA - CLINICA DENTAL

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**



Horlabeitia Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 207 851
www.aratklinika.com



IRAZABAL
clinica dental

**Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK.**

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tlfoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

Dra. Laura Martínez  *Dr. Alejandro Recas*

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetriziaz
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgaitardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizenziatua
693.319

San Agustín Kalea, 4 beheko eskuerra
20600 Eibar (Dioizka)
943 527 075 - 688 864 808
info@eibarclinicadental.com

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1 esk. 843-702888



Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85



**P. Echeverria
A. Esnaola**

Hortz klinika - Clínica dental
Fermín Calbetón 19-3 esk. EIBAR
943 20 72 17 - 680 422 808
@oyadent



943-206776



osasun gida

Kiromasajea

**Kiromasajea
Osteopatia**

Astelehena
ostirala: 08:00/20:00

613 07 03 92
arza.itsaso@gmail.com

ARZA
ITSASO ARZA

AKZA_kiromasaje_osteopatia
Santa Ana, 12 - EL GOIBAR-

Podologoak

**ELENA
AIZPUN
PODOLOGOA**

838100124
kollegiatu zombakia



T. Etxebarria, 5 - I. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Ψ Oscar Mondragon Lili
GOKUZ ETA ARRESALDEZ

Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206873 / 686859023

Okulistak

Recalde
Clinica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

•Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 284113



Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

ERDIKO KALE 54
**ARRASATE
943 799746**




PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidor
Lopez
Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



943-206776

“Gure hizkuntza eskubideak baldintzatuak eta mugatuak daude”

AGURNE GAUBEKA • Hizkuntza Eskubideen Behatokia



Maiatzaren 17an, eguaztena, Agurne Gaubeka Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria izango dugu Eibarren hizkuntza eskubideen inguruko hitzaldian. Errebal Plazan izango da, 18:30ean, eta ekitaldia herritar guztientzat zabalik egingo da, dohainik.

Maiatzaren 17an Eibarren izango zara, Eibarren AKE-BAIk gonbidatuta. Zertaz jardungo duzu?

Hizkuntza eskubideez ariko gara, zehazki euskaraz bizitzeko eskubideaz eta egun dugun egoeraz. Kontuan izan behar dugu euskarak estatus eta babes ezberdinak dituela Euskal Herriko eremu ezberdinetan, baina lege eta arau ezberdinez gaindi hizkuntza eskubideak oinarrizko giza eskubide bezala defendatzeak duen garrantziaz hitz egingo dugu.

Zeintzuk dira Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren zeregina nagusiak?

Herritarren euskaraz bizitzeko eskubidearen defentsa egiten dugu eremu publiko zein pribatuan eta gure jarduna Euskal Herri osoan burutzen dugu (euskararen lurralde osoan). Behatokiak “Euskararen Telefonoa” izeneko tresna edo zerbitzua jartzen du herritarren eskura: doako zerbitzua da eta herritarrek euskaraz bizitzen saiatzerakoan dituzten bizipenak edo oztopoak helarazten dizkigute (kexak, zoriontzeak edo kontsultak ere jasotzen ditugu) eta horiek guztiak dagozkien bideratu eta aldaketak eragiten saiatzen gara, herritar eta entitate ezberdinen arteko bitartekari lanak egiten ditugu aldaketa horiek bultzatze aldera. Bestalde, jasotako guztiarekin urteko txostena osatzen dugu eta horrek urtez urteko argazkia, egoera eta aurrerapauso

“Hizkuntza eskubideak oinarrizko giza eskubide bezala defendatzeak duen garrantziaz hitz egingo dugu maiatzaren 17an”

edo atzerapausoak detektatzen laguntzen digu. Era berean gure jardura aurrera eramateko herritarrekin harreman zuzena mantentzeaz gaindi, kolektibo, eragile, erakunde zein enpresa ezberdinekin ere harremanak garatzen saiatzen gara, azkenean hizkuntza eskubideen babes eraginkorra lortzeko beharrezkoa delako guztien artean aldaketak eragitea. Bestalde, garrantzitsua da gure irakurketak Europako Kontseilura helaraztea ere (Erregio edo gutxiengoen hizkuntzen Europako Gutunaren betetzean eragiteko) eta Europako beste gutxiagotutako hizkuntza batzuen alde lan egiten duten elkarteekin harremanak izatea, hori ere gure zereginen barruan sartzen dugu.

Duela gutxi 'Hizkuntza Eskubideen Egoera 2022' txostena aurkeztu duzue. Zeintzuk dira txostenaren ondorio nagusiak? Zein izan da azken urteotako bilakaera?

Beste behin herritarrek euskara erabiltzeko dituzten oztopoak nabarmendu dituzte, bai eremu publikoan baina baita eremu pribatu edo sozioekonomikoan ere. Azkenean, herritarrek nabaritzen dute euskara erabiltzeko determinazioa izan arren edo euskarazko harremana aukeratu arren, espazio askotan ez dela hori behar bezala bermatzen eta une askotan baldintzatzen dela. Gainera, askotan euskarazko eskaintza faltak ere era nabarmenean eragiten du herritarren hautuan. 2022an euskaraz kontsumitzeko ditugun espazio urriek ere zeresana eman dute.

Zein arlotan urratzen dira gehienbat euskaraz bizitzeko eskubideak?

Arlo zehatzei dagokienean, eremu publikoan administrazio zerbitzu orokorretan, osasungintzan, segurtasunean eta Espainiako administrazioekin izandako harremanetan emandako urraketak nabarmendu ziren, baina hainbat udaletako zerbitzuetan ere oraindik hutsune handiak nabaritu zituzten herritarrek. Eremu pribatuari dagokionean, merkataritza gune handietan detektatu genituen urraketa gehien, baina aisialdiari lotutakoak edo interes orokorreko zerbitzuetan (energia hornitzaileak, garraioa, telekomunikazioa) emandakoek ere arreta deitzen dute. Bestalde, kontuan izan behar dugu urraketarik salatu ez arren, oraindik euskaraz bizitzea ia ezinezkoa den beste hainbat eremu ditugula, herritarrek zuzenean gaztelania edo frantsesa erabiltzera behartu dituztelako.

Herritarrok gure hizkuntza eskubideen kontzientzia daukagu? Eta kontzientzia hori edukita ere, zergatik egiten diegu uko maiz gure eskubideei?

Ez da erraza kontzientzia izatea eta, behin hau izanda ere, toki guztietatik euskara bigarren mailan edo ikusezin egiteko erabakiak daude atzean. Gure eskubideak baldintzatuak eta mugatuak daude, bai legediak berak babes nahikoa eskaintzen ez digulako, gizartean eta

“Herritarren euskaraz bizitzeko eskubidearen defentsa egiten dugu eremu publiko zein pribatuan”



erakunde askotan behar bezalako aitortza falta delako edo egiten den euskarazko eskaintza beste hizkuntzetakoa baino askoz urriagoa delako, horrek guztiak euskaraz kontsumitzea edo zerbitzuak jasotzea, euskaraz lan egitea edo euskaraz ikasteko dugun eskubidea mugatu egiten du, eta gure kontzientzia ere muga horien azpian kokatzen dugu askotan.

Azken hilabeteetan hizkuntza eskubideak murriztu dituzten sententziak izan ditugu. Zer esan dezakezue horren aurrean?

Sententzia horiek euskararen normalizazioaren aurka eta herritarrek euskaraz bizi ahal izateko berme neurrien aurka egiten dute. Euskarazko zerbitzuak bermatzeko neurriek beste eskubide batzuk urratzen dituztela irudikatu nahi da, baina horren atzean euskaraz bizitzeak gaztelaniaz bizitzeak baino aitortza eta garrantzi gutxiago duela pentsatzea legitimatu nahi dute. Sententzia horiek, euskararen kontra baino, zerbitzuak jaso behar dituzten herritarren berdintasun printzipioaren kontra doaz, herritarren oinarriko eskubideen kontra. Horrelako erabakiek ondorio zuzenak dituzte egungo zerbitzuetan zein etorkizunekoetan.



Famiek primeran pasatu zuten barixakuan egin zen ginkanan

Joan den barixakuan ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Astixarekin batera, II. Familia arteko Ginkana antolatu zuen. Lau taldek eman zuten izena, 32 parte-hartzaile izan ziren guztira, haurrak eta helduak,

eta, helmugara nor iritsi lehena, euren onena eman zuten guztiek. Untzagan ekin zioten ibilbideari eta begiraleek emandako pistei jarraituz herriko hainbat lekutatik pasatu ziren: Amaña, Legarre,

Txaltxa Zelai, Errebal, Bidebarrieta, Barakaldo eta Urkizu. Bidean hainbat jolas eta zeregin bete behar izan zituzten eta, kapelak eta pirata-partxeak soinean eta pankartak eskuetan, pozik iritsi ziren Urkizuko helmugara. Gainera guztientzat egon zen saria: diplomak eta urrezko dominak partaide guztientzat eta arratsaldea biribiltzeko "merendola" bikaina.

Datorren astean banatuko dira Ipurterreko sariak

Martitzenean eman zuen epaimahaiak aurtengo Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketako ebazpena. Eskolekin elkarlanean ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen lehiaketak 29. edizioa bete du aurten. Eibarko LH eta DBH-ko ikasleek 1.000 lan inguru aurkeztu dituzte eta hauek izan dira irabazleak: LH1-2 mailan Udai Mallagaray (San Andres); LH3-4 mailan Iñigo Carrion (Aldatze); LH5-6 mailan Malen Vega (J.A.



Mogel); DBH1-2 mailan June Paguy (La Salle Azitain), eta DBH 3-4 mailan Jone Alcalde (La Salle Azitain). Sari-banaketa hurrengo martitzenean, maiatzak 16, egingo

da Coliseon estreinakoz. Goizeko 10:00etan hasiko da ekitaldia eta ordubeteko iraupena izango du. Sariak banatzeaz gain Tor magoak ikuskizuna eskainiko du.

CD Vitoria eta Eibar Urko, beste behin tapoiarena egiten

Denboraldi honetan ere aurrekoetan behin baino gehiagotan gertatu da. Eibar Urko probintziako Ohorezko Mailako liderra da liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan, Añorga bigarrenari sei puntuko aldea aterata, hau da, liga esku-eskura dauka. Baina CD Vitoria filialak, RFEF 3. mailako bere multzoan bigarren amaitu ondoren, promozioko lehenengo kanporaketan kale egin du multzo berean bosgarren sailkatu zen Deustorekin: Bilbon husna berdindu eta gero, aurreko domekan 1-2 galdu baitzuten Unben, modu horretan RFEF 2. mailara igotzeko bere asmoak zapuztuz. Denboraldiz denboraldi asko kostatzen ari zaie



Deustutik etorritako zaletuek ondo ospatu zuten Unben Vitoria bidean laga zutela.

gizonezkoen Eibar FTko bigarren eta hirugarren taldeei tapoi horrekin amaitzen.

Aurreko asteburuan jokaturako neurketetan, Vitoriak Deustorekin 1-2 galtzen zuen bitartean Eibar Urkok emaitza berarengatik irabazi zion Aloña Mendiri Oñatin. Bi partiduetako martxa ere berbera izan

zen, etxeko taldeak irabazten hasi zirelako. Eibar Urkok 76. minutuan Odriozolak eta 81. Añonok sartutako golei esker eman zion buelta partiduari. Vitoriak, bestalde, ez zuen jakin Uzkudunen golari etekinik ateratzen. Unben bitizako partiduan aldeko zaletu gehiago izan zituen Deustok Eibarko filialak baino.

Hiru emakumezko Ezoziko tiraldiaren sei onenetakoen artean

Aurreko zapatuan Sorraluzeko Ezozin jokaturako Gipuzkoako hiru txirlo txapelketaren zazpigarren jardunaldian sei lehen sailkatueta-kotik erdiak emakumeak izan ziren. Jakinda gizonezkoena baino askoz kopuru txikiagoan hartzen dutela parte, tiraldi bikaina eskaini zuten. Guztira 63 bolarik hartu zuten parte Aretxabaletako UDAko Jon Andoni Jakak irabazi zuen tiraldian. Bera izan zen bakarra sei txirlo etzaten, atzetik Isana Gorosabel taldekidea eta Asola Berriko Enara Montiel sailkatu ziren, bostekin, eta laurekin jarraitu zieten Pedro Gomez gaur egungo sailkapeneko liderrak, UDAko Nerea Letek eta San Migueleko Angel Ibarluzeak.

Sailkapen nagusian Pedro Gomez eibartarrak jarraitzen du lidergoan, San Andreseko Lander

Odiaga hiru txirlora duela, eta Asola Berriko Bittor Astigarraga da hi-



Ezoziko tiraldian lehenengoko postuetan sailkatutakoak jasotako sariekien.

rugarren, taldekidearengandik sei txirlora. Beteranoen sailkapenean bi eibartarrak daude gorenean, eta emakumezkoenean Isana Gorosabel eskoriatzarrak aurea hartu du, Asola Berriko hiru ordezkarien gainetik: Enara Montiel lau txirlo-ra dago eta Jone Perales eta Olaitz Rodriguez bostera. Binakako sailkapena ere eibartarren esku dago une honetan, Bittor Ugarteburu eta Bittor Astigarraga gorenean duedela, eta Pedro Gomez eta Gorka Unamuno taldekideak txirlo bakarrera. Azkenik, taldeka ere Asola Berri A da nagusi, San Miguel A 15 puntura dagoela; Asola Berri B laugarren dago.

Hurrengo zapatuan Aretxabaletan jokaturako da zortzigarren jaurtialdia, betiko lez 17:00etan hasiko den saioarekin.



Eibar Rugby Taldeak Euskal Ligako finala jokatuko du Getxo gainditu ondoren

Eibar Rugbyko gizonetzkoen lehen taldeak, Getxorekin 30-27 galdu bazuen ere, hilaren 20an Irungo Txingudiko instalazioetan jokatuko den Euskal Ligako finalerako txartela lortu du. Final horretan Elorrio izango du aurkari. Eibartarren lehen taldeak Faduran galdu bazuen ere, ondo jakin izan zuten eusten aurretik zuten puntuazioaren aldeari, azkenean zortzi puntuko abantailarekin aurkaria gainditzeko. Ibarbururen

taldea intentsitate handiz zelairatu zen hasieratik eta, une batzuetan, Eibarkoen akatsak baliatuz, bizkaitarrek globalean aurretik jartzea lortu bazuten ere, ondo moldatu ziren markagailua euren aldera bihurtzeko. Aurrealde indartsuarekin jokatuz, markagailua arriskutik urrun izatea lortu zuten bigarren zatian. Orain beste astebete dute Txingudin jokatuko duten ligako final hori prestatzeko.

Paula Calvo igerilariak bost proba irabazi zituen Frantziako Tarbeseko Sarian



Aurreko asteburuan Frantziako Tarbes herrian jokatutako bertako Sarian, Eibar Igerixaneko Paula Calvok Gipuzkoako Igeriketa Federazioa ordezkatu zuen. Eta zelan ordezkatu gainera, bizkar modalitateko 100 eta 200 metrokoak eta libre erako 100 eta 400eko probak bereganatu baitzituen. Horrez gain, 4. postuan sailkatu zen 200 estilotan, eta erreleboetan lehenengoa eta bigarrena izan zen Gipuzkoarekin 4x100 libre eta 4x100 estilo probetan, hurrenez hurren.

JAZeko Ledesma hirugarren Eivissako munduko distantzia luzeko triatloian

Eivissan aurreko asteburuan jokatutako triatloiko distantzia luzeko Munduko Txapelketan JAZ Eibar Triatloi Taldeko ermuarrak lan paregabea egin zuen, bere adin-taldean hirugarren postua eskuratuz. Igerian 3 kilometro, bizikleta gainean 120 eta korrika beste 30 egin eta gero, Miguel Ledesmak 10. tokian amaitu zuen sailkapen nagusian, bere adin-taldeko hirugarren postuan sailkatzeko. Lan bikaina Ledesmak egindakoa!

Aitor Fernandez taldekideak, bestalde, Hondarribiko sprint distantziako triatloian hartu zuen parte, lasterketa bikaina eginez 93. postuan amaitzeko. Bertako supersprinteko distantzian izan ziren, aldi berean, JAZeko Ander Ordoño eta Kepa eta Iñigo Marquez ere.



Miguel Ledesma ikaragarri ondo ibili zen.

Hilaren 20ko mendi-irteera astebete atzeratu eta 27an egingo da

Klub Deportiboko mendi batzordekoek Artzaintza Naturbidearen 20. etapa egiteko urteko egutegian ezarrita zuten data aldatu egin dute eta astebete geroago osatuko dute. Horren zergatia gure herrian asteburu horretan ospatuko den Euskal Jaian dago, hilaren 28ko hauteskundeek bultzatuta maiatzaren azken asteburua laga eta astebete aurreratu dutelako.

Aurreko zapatuan, bestalde, 25 laguneko eibartar mendizale tal-



deak Araba aldera jo zuen Naturbide horretako 19. etapa egiteko. Fresno de Losa herritik irten eta, Quintanilla eta Boveda herrixketatik pasatuz, 1.128 metroko Arrayuelas gaina egin zuten, ondoren

goitik beherako bidean Lalastran amaitzeko. Valderejoko parke famatuaren sarrera den horretara heltzeko 17 kilometroko ibilaldian 631 metroko desnibela gainditu zuten parte-hartzaileek.

Amañako pilota txapelketak bosgarren edizioa beteko du aurten

Maiatzaren 13an, 20an eta 27an eta ekainaren 3an jokatuko dira pilota txapelketako sailkatze partiduetako jardunaldiak, ondoren, ekainaren 10ean, bertako finalak jokatu behar izango dira amaiera emateko. Alebin eta infantil mailetako partiduak osatuko dute binakako modalitatean jokatzen den torneoaren karteldegia eta, aurreko edizioetan izandako onarpena aprobetxatuz, txapelketa Debabarrena inguruko hainbat udalerritako pilota eskolakoek hartuko dute parte oraingoan: hor izango dira, Eibarkoekin batera, Elgoibar,



Torneoa bost zapatutan garatuko da.

Soraluze, Zaldibar, Elgeta, Azkoitia, Bergara, Antzuola, Deba, Oñati, Zumarraga, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Mallabiko ordezkariek, guztira 162 pilotari kopurura iristeko. Partidu guztiak Amañako dorreetako frontoian jokatu dira; euria tartean izanez gero, Astelena frontoia hartuko luke jardunaldia.

Benjamin, infantil, alebin eta nesken mailatan jokatu den pilota txapelketaren zapatuko lehenengo jardunaldia goizeko 10:00etan hasiko da, esan bezala, Amañako frontoian.

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

tartak
enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
943 20 79 73

“Musikan arraroa da denbora guztian purista izatea; aspertzen bazara, grazia galtzen du”

EUSKELGA • Folk musika taldea



Hainbat urtez isilik egon ondoren, martxa bizian itzuli da Euskelga folk musika taldea eta As Burgas Galiziako Etxeak antolatzen dituen XXXVIII. Dia das Letras Galegas jaietan izango ditugu bihar zuzenekoa eskaintzen, 21:00etan, Urkizun.

Marta Zubiaurre, Luis Arias eta Jose Chazo dira taldeko kideak eta lehenengo biekin egoteko aukera izan genuen Galiziako Etxean. Gogotsu daude taldeak hasi duen ibilbide berriarekin, eta folk doinuekin Urkizu dantzan jartzeko asmoz daude. Horretarako, erreperitorio berezia prestatu dute.

Denbora batez zuen jarduna eten ondoren, berritasunekin itzuli da Euskelga. Zergatik bueltatu zarete berriz eszenatokietara?

MARTA: Euskelgak 2015 inguruan hasi zuen ibilbidea eta, orduan, Luis eta biok taldean geunden. Gero, 2018an, taldea laga nuen arrazoi pertsonalengatik, eta arrazoi pertsonalengatik taldera itzuli naiz berriz ere.

Luis, besteok taldean jarraitu zenuten?

LUIS: Bai, jarraitu egin genuen, oztopoak oztupo, pandemia izan genuelako tarteko. Martak laga ondoren, Johnny irlandarra joan zen, eta trantsizio unea bizi izan genuen. Gorabeherekin, pazientzia izan genuen eta bapatean Jose Chazo agertu zen. Bultzada eman zion taldeari eta, gero, Marta etorri zen. Zaila

da talde amateurra sortu eta jarraitzea, are gehiago hemen hain ezaguna ez den musika egiten baduzu, eta gurekin zenbiltzan trikitilariak eta perkusionistak taldea laga ondoren, Chazoren eta Martaren bultzadarekin aurrera egin dugu hirurok.

MARTA: Gogo askorekin itzuli naiz taldera eta Chazok ere demaseko gogoa dauka. Beraz, aurrera egin nahi dugun hiru lagun elkartu gara eta lan handia egin dugu erreperitorioa osatzen. Lehen jotzen genituen abesti batzuk hartu ditugu, baina beste bertsio batzuk prestatu ditugu. Orain nik abesten dut (lehen Johnnyk egiten zuen) eta motibagarria da.

Orain lehen baino lagun gutxiago zaudete taldean. Nola moldatzen zarete? Taldearen izaera aldatu da?

MARTA: Lehen, agian, Irlandako folk tradizionalagoa egiten genuen.

LUIS: Lehen aipatu dudan trantsizio momentu horretan Javi Basterretxea sartu zen taldean (ez dakigu berriz taldera itzuliko den ala ez) eta, folk mundutik ez zetorrenez, beste bide bat ireki zigun. Pink Floyd, Nirvana eta beste talde batzuren abestien bertsioak egiten hasi ginen. Horri esker taldea aldatzen joan



Marta Zubiaurre, Luis Arias eta Jose Chazo Euskelga taldeko kideak. EUSKELGA

zen eta, musika tradizionala egiteaz gain, beste gauza batzuk jotzen ditugu. Musikaren munduan arraroa da denbora guztian purismoari eustea; aspertzan bazara, grazia galtzen du.

Pink Floyd eta horrelako taldeen abestiak jotzen dituzue, baina folk estiloa emanez?

MARTA: Hori da, fusionatuta. Horrez gain, letrak euskaratu egin ditugu. Bestetik, 'Arratsalde honetan' abestia ia prest dugu. Gantxo behar da. Azkenean, gustora jotzea da kontua. Musika tradizionala ere eskaintzen dugu, baina dena uztartzen dugu.

LUIS: Estilo askotako abestiak jotzen ditugu, baina zentzu batekin eta folk doinu inguratuta.

Ibilbide berria indarrarekin hasi duzue, kontzertuzerrenda luzearekin. Horrek motibatzen zaituzte?

LUIS: Gu mugitu behar izan gara kontzertuak lortzeko eta, egia esan, ez dugu kontzertuekin ito nahi. Hau denborapasa da guretzat. 20 urte inguru genituenean edonon eta etengabe jo nahi genuen, asko sakatu genuen eta, azkenean, dena hautsi zen. Orain lasaiago gaude eta gustatzen zaigulako jarraitzen dugu, baina mugak jarri ditugu, ez gara gehiegi emozionatu kon-

“Estilo askotako abestiak jotzen ditugu, baina zentzu batekin eta folk doinu inguratuta”

tzertuak programatzeko orduan, eta horrela jarraitu nahi dugu. Gure musika erakutsi nahi dugu, baina agobiatu barik.

MARTA: Helburua gozatzea eta taldeak dituen gas-tuak estaltzea da. Taldetik kanpo lana, familia eta bestelakoak ditugu, eta Euskelgarekin gozatzea da nahi duguna. Niretzat taldea da neure denborapasa, eta Luisekin eta Chazorekin denbora pasatzea oso atsegina da.

Taldearen lehengo etapan diskoa ere grabatu zenu-ten. Beste martxa bat zenuten?

LUIS: Gure asmoa maketa bat egitea zen, baina emaitza asko gustatu zitzaigun eta diskoa grabatzea erabaki genuen. Diskoa grabatzea ez da gauza makala eta baliteke gero etorri zen etenaldiaren arrazoi-tako bat izatea.

Elkarrizketaren
bidea

MARTA: Azken neurrian, sasoi horretan denok ez genituen helburu berdinak. Batzuk gehiago nahi zuten, musikaz bizi, eta beste batzuk gozatzea besterik ez genuen nahi. Orduan, konpromiso-maila ezberdina da. Orain, guretzat nahikoa da ondo pasatzea. Estadioak bete edo jaialdi handietan jo nahi baduzu, lan asko egin behar duzu.

Itzulerako lehen kontzertua Elgoibarko Derry tabernan jo zenuten San Patrizio egunean. Zer moduzko esperientzia izan zen?

LUIS: Egun hori markatuta geneukan taldearen itzulerarako eta kontzertua espero baino hobeto irten zen. Taberna batzuetan zaila da jotzea, jendea beste gauza batzuetara dagoelako, baina kontzertu horretan jendeak dena eman zuen.

MARTA: Gainera, ekipoak oso ondo funtzionatu zuen eta ondo entzun zen. Oso pozik amaitu genuen eta erantzun bikaina jaso genuen. Jendea oso motibatuta egon zen.

Zuen musikak, berez, asko animatzen du giroa, ezta?

MARTA: Abesti batzuk lasaia dira, baina beste batzuk badira jai-girokoak.

LUIS: Horrelako musika ondo egokitzen da tabernetara, baina hori publikoaren arabera da baita ere.

Eta Urkizuko parkea nola egokitzen da zuen musikara?

MARTA: Arratsaldeko 18:00etan joko bagenu, agian ez litzateke giro aproposena egongo gure kontzerturako, baina 21:00etan jotzen dugu, poteo orduan, eta jendea girotuta egongo da.

LUIS: Dia das Letras Galegas jaietan demaseko giroa sortzen da, jendea jaietz gozatzeko gogoz dago eta, inguruan jendea berbetan egongo bada ere, gustatuko zaiela uste dut. Gogotsu nago. Ekipo potentea eramango dugu, ondo entzungo dela uste dut eta kalean joko dugu, eszenatokira igo barik. Beraz, atsegina eta hurbila izango dela pentsatzen dugu.

Errepertorio aldetik, nolako kontzertua izango da?

MARTA: Gorabeherak dituen errepertorioa presatatu dugu.



“Dia das Letras Galegas jaietan demaseko giroa sortzen da, jendea jaietz gozatzeko gogoz dago eta gu ere gogotsu gaude”

LUIS: Momentu batzuetan publikoa animatuko dugu, gero lasaitu, animatu berriz, eta horrela.

MARTA: Hori bai, goi-goian amaituko dugu, hori ziur. **Publikoarekin hartu-eman edukitzea garrantzitsua da? Euren erantzunak eragiten dizue?**

MARTA: Elgoibarren, adibidez, batzuk topera dantzatzen ibili ziren eta bideoan grabatu zituzten, baina momentu horretan ni ez nintzen jabetu, kontzertututa nengoelako.

LUIS: Ni fijatu nintzen eta atentzioa deitu zidan. “Oso ondo, hori da egin behar dena”, pentsatu nuen. Dantza egitea irtetzen bazaizu, aurrera, dantza egin! Batzuk nahiago dute geldirik egon musika entzuten, eta ondo dago hori ere.

MARTA: Gure alboan ahots ozenez berbetan gelditzen direnak dira gogaikarriak (barreak). Normalena da jendea adi ez egotea momentu oro. Horregatik, abesti ezagunago batzuk jotzen ditugu, gantxo bezala, eta jendeak arreta gehiago jartzen du momentu horretan.



“Giro polita sortzea” bilatzen du Aitor Huergok beste ezer baino gehiago, jendearengandik jasotako feed-backa asko estimatzen baitu bere lehenengo disko honekin “eraikitze prozesu pertsonala” bezala bizi duen esperientzian. Horregatik, asko eskertzen du Arrate Kultur Elkartetik eskaini dioten aukera. Euskal Jaiaren barruko egitarauan antolatutako kontzertua datorren asteko eguenean izango da, 20:00etan, Kultu tabernan.

Aitor Huergoren "Barruko Paisaiak" Kultun hilaren 18an

Bederatzi abestiz osatutako “Barruko Paisaiak” izenburuko diskoarekin debutatu du Aitor Huergok abeslari bezala, aurretik Azpeitiko Main Lander rock taldean jardun izan badu ere gitarra-jole. Otsailetik hona lau-bost kontzertu eskaini ditu eta, diskoko abestiak aurkeztuko baditu ere, “modernoagoak diren pieza batzuk bere tokia izango dute Kultuko emankizunean”. Ez du “sermoirik bota nahi”; horregatik, “pieza instrumentalak txertatuko ditut”. Hori bai, “giro intimoa, lasaiaren” bila jardungo du kontzertuan.

“Barruko Paisaiak” diskoa ez du berea balitz bezalako lantzat hartzen, “elkarlanean egindako produktua delako. Ideia nirea izan bada ere, Aner Hernandezek artistak lana egin du diseinuan eta Unai Mimenzak jardun izan du grabazio eta nahasketa-lanetan”. Aitorren kontu dira ahotsa, gitarra eta baita hitzak ere: “Kontakizun errealak dira paisaia horiek osatzen dituztenak, benetako istorioak, beti ere

ikuspegi pertsonaletik abiatuta”. Irakaslea ere badenez, Huergok eskola ere erabili du gizartearen zati bat islatzeko, “bullyng-a eta halakoak kontuan hartuta”. Eta bizitza eta heriotza ere landu ditu ikuspegi pertsonal horretatik: “Kezka unibertsalak baitira, gizarreak berarekin dakartzanak”.

Zuzenekoekin ikasten

Diskoko bederatzi abestien artean, hiru bertsiok dira: “Imanol Larzabalen ‘Mayo’, ‘Wild Mountain Thyme’ eskoziar-irlandar abesti herrikoiatik sortutako ‘Etorriko al zara?’ eta Leo Brouwer kubatarren ‘An idea’”. Beste abesti guztiak

"Ekitaldietan jendearekin konektatzea da garrantzitsuena"

berarenak dira. Eta nabaritzen hasia da bakarka jotzeak dituen ezaugarriak: “Zuzenekoetan asko ari naiz ikasten. Bakarka aritzean, libreago bazara ere, arriskua ere handiagoa delako”, dio abeslariak. “Garrantzi handia ematen diot jendearekin konektatzeari; entzule kopuruak ez du horrelako pisurik”.

Abesterakoan erreferenterik baduen galdetuta, “hori momentu bitalaren araberakoa” dela diosku. “Su Ta Gar entzun dezaket, gero Metallica eta, ondoren, Silvio Rodriguez... Azken aldirian Fitorekin nabil. Baina gehiagotan jo izan dut Mikel Markez eta Silvoren musika, gitarra klasikoaren ekarpena”. Eta badihardu beste proiektu batzuei ekiteko gogoz, “kantak sortzen, beste espazio sonoroak esploratzen, instrumentu berriak sartzeko asmoarekin”.

Otsailaren 11n Itziarko Burugorri aretoan Aitor Huergok hasi zuen ibilbideak beste geltoki bat izango du, oraingoan Kultun. Musika irakasleak gomendioa ere egin digu kontzertura joateko asmoa duenarentzat: “Aukera badu kantuak aurretik entzuteko, askoz hobe. Horrek lagunduko digulako giro polit eta bereziena sortzen”.



Dia das Letras Galegas asteburu osoan Urkizun

As Burgas Eibarko Galiziako Etxeak antolatuta, asteburu honetan ospatuko dira Dia das Letras Galegas jaiak Urkizuko parkean, Francisco Fernandez del Riego idazlearen omenez. Gaur hasiko dira jaiak, 19:00etan Galiziako Jai Batzordearen taberna zabaltzearekin batera. Ordu horretan hasiko da gaita-poteoa, Os Galaicos taldearekin, baita umeendako pailazoen ikuskizuna, Lekim Animazioak taldearen eskutik. Gaueko 22:00etan, berriz, dantzaldia hasiko da, Suavecito orkestrarekin. Gauerdian etenaldi labur bat egingo dute, queimadarako, eta 00:30etik 01:30era berriz ere dantzaldia egingo da, orkestra berarekin.

Bihar, 11:30ean, neska-mutilentzat (8-12 urte) "chaves" jaurtiketa egingo da; 12:00etan, herri-kirolen txanda izango da; 13:00ean igel-toka txapelketak hasiko dira, umeentzat (doan) eta helduentzat (izen-emateak euro bat balio du); 16:00etan hasiko da helduentzat "chaves" jaurtiketa (izen-emateak bi euro balio du); 18:30ean, dantza eta musika erakustaldia eskainiko dute Os Galaicos, Aire Andaluz eta Txindurri taldeek; 21:00etatik 22:00era, Euskelga taldeak kontzertua emango du; eta 22:30ean hasiko da gaueko dantzaldia, Salsarena taldearekin (00:30ean etenaldia egingo dute, queimadarako). Goizaldeko 02:00etan amaituko da musika.

Eta domekan goizetik hasiko dira jarduerak: 11:45ean Untzagatik Urkizura kalejiran joango dira Os Galaicos taldekoak eta Eibarko Trikitilariak. Jarraian dantza eta musika erakustaldia eskainiko dute, Kezka, Duguna, Eibarko Trikitilariak eta Os Galaicos taldeek; 14:00ean lore-eskaintza egingo dute, Castelaoren monumentuan; 16:30etik 18:30era, mahai-jokoak hasiko dira, Odisea elkartearen eskutik; eta 18:30etik 19:30era kontzertua emango du Eibarko Musika Bandak. Eta 22:00etan argurtuko dituzte jaiak, taberna ixtearekin batera.



Argazkilaritza kalera aterako dute biharko topaketetan

Hilaren 28ra arte ikusgai egingo diren erakusketak aurreko barixakuan zabaltzearekin batera, hasi da Argazkilaritza Maiatzean. Klub Deportiboko argazkilaritza batzordeak antolatutako egitaraua Portalean estreinatu zuten, lau erakusketa aldi berean inauguratuta: Enric de Santos, Natxo Zenborain, Rober Astorgano eta 2022an Indalecio Ojanguren Saria irabazi zuen Aitor Aranaren lanak ikusi ahal dira bertan. Jarraian, Topalekura joan ziren, Oskar Baglietto eibartarraren "Paisaiaren nire begiradak" izeneko zabaltzera. Eta, aurtengo egitaraua osatzeko, beste hiru erakusketa gehiago zabaldu zituzten: Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldearen lanak Portalea tabernan ikus daitezke; "Argizaiola 2022" lehiaketako argazkiak, Depor tabernan; eta "XL. Nazioarteko Gipuzkoa Saria" izenburuko erakusketa, Untzagako jubilatua etxean.

Eta bihar, berriz, argazkilaritza kalera aterako dute, "Topaketak Kalean" izeneko ekimenarekin. Deportiboko argazkilariak egun osoan, goiz eta arratsaldean egingo dira Untzagan, argazkiak erakusten, nahi duten guztiei erretratuak doan egiten...

Sanjuanetarako dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu da

San Juan jaietan kuadrillentzat Udalak ematen dituen dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago. Dirua kamisetak, petoak eta jaietarako beste material batzuk erosteko izango da eta eskaerak Udalaren webgunearen bidez egin daitezke, ekainaren 9ra arte. Eskaerak nola egin eta beste informazioa ere bertan aurkituko duzue.





51. Udako Ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

Udako Euskal Unibertsitateak prest dauka 51. Udako Ikastaroen zerrenda eta matrukula egiteko epea ere zabalik dago. Euskal Herriko hiri desberdinetan egingo dituzte ikastaroak: Bilbon, Tolosan, Errenterian, Usurbilen, Gasteizen... Eta, noski, Iruñean, Baionan eta Eibarren ere. Iazko ildoari jarraituz, Udako Ikastaroak hausnarketa-gune izango dira aurten ere. Ekainaren 14an emango zaie hasiera, Bilbon, eta uztailaren 12ra bitartean 20 ekintza eramango dituzte aurrera: 18 ikastaro izango dira, eta beste bi ekintza osagarri. Ikastaro guztien zerrenda ikusteko eta matrikula egiteko www.ueu.eus helbidera sartu.



DBH-ko ikasleentzat akanpada eta surf ikastaroa

Udarako bi jarduera antolatu ditu Udalak DBH-ko ikasleentzat. Urdaibain bost eguneko akanpada (uztailaren 17tik 21era) eta surf ikastaroa Deban (bi txanda egongo dira, uztailaren 3tik 7ra eta uztailaren 10etik 14ra). Biei buruzko informazioa Udalaren webgunean dago eta aurrematrikula ere bertan egin behar da, aslehenetik aurrera.



“Hitzen nahaste-borrastea” lehiaketako irabazleak

Banatu dituzte “Hitzen nahaste-borrastea” lehiaketako sariak. Aurtengo edizioan 41 lagunek hartu dute parte Udalak Eibarko bi euskaltegiekin lankidetzan antolatutako lehiaketan eta epaimahaiaren saria Marisol Garinek jaso du, bera izan delako nahaste-borraste gehien zuzendu dituen. Horrez gain, zozketa bidez beste bi sari eman dira eta horiek Idoia Martinez eta Alberto Arriagarentzat izan dira.

Pagatxaren zine-forum saioa Armeria Eskolan izango da



Gaur egingo da Pagatxa emakume elkartearen zine-forum saio berria, baina oraingoan Armeria Eskolako areto nagusian izango da, Portalekoan izan beharrean.

Eibarko Udaleko Berdintasun zerbitzuaren eta Armeria Eskolaren laguntzarekin antolatu den saioa 18:30ean hasiko da eta “El Porvenir” Mia Hansen-Løve zuzendariaren filma emango dute.


Talogintza ikastaroa martitzenean

Euskal Jaiaren egitarauaren barruan maiatzaren 16an, martitzenean, talogintza ikastaroa egingo da Arrate Kultur Elkarte, Soko Baskaranekin. Saio bakarra izango da, 18:30ean Arrate Kultur Elkartearen lokaletan, eta bertan parte hartzeko izena eman beharko da aldeztetik, arratekultu@gmail.com helbidean edo, bestela, 638284912 telefono zenbakian. Kultura-leko bazkideentzat doan izango da eta besteek 5 euro ordaindu beharko dituzte.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | | | | | 3 | | |
| | | 7 | | | | 5 | |
| | 3 | | 6 | 2 | | | 9 |
| 2 | | 6 | 7 | | | | |
| | | | 8 | 9 | 2 | | |
| | | | | | 6 | 1 | 9 |
| | 5 | | | 8 | 9 | | 1 |
| | 2 | | | | | 4 | |
| | | 4 | | | | | 7 |





soluzioa

**S
U
D
O
K
U**


ZERTXOBAIT ZAILAGOA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 6 | | | 9 | |
| | | | 3 | 9 | 8 | 2 | 6 |
| | | | | | | 8 | |
| 5 | 6 | | 8 | 7 | | | |
| 7 | | | 9 | 6 | | | 5 |
| | | | 5 | 4 | | 1 | 7 |
| | | 9 | | | | | |
| 1 | 5 | 8 | 7 | 9 | | | |
| | | 4 | | | 5 | 7 | |

soluzioa



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



MARGOTZEKO IRUDIAK

Maiatzak 12/18

BARIXAKUA 12

ZINE-FORUMA

18:30 "El Porvenir" filmari buruzko zine-forum saioa. Armeria Eskola (areto a).

GALIZIAKO JAIK

19:00 Galiziako Jai Batzordearen taberna zabaltzea. Gaita-poteoa, Os Galaicos taldearekin. Umeendako pailazoak, Lekim Animazioak taldearen eskutik.

22:00/00:00 Dantzaldia, Suavecito orkestrarekin. Queimada.

00:30/01:30 Dantzaldia, Suavecito orkestrarekin. Urkizuko parkea.

ZAPATUA 13

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

Goiz eta arratsaldez "Topaketak Kalean": erakusketak, erretratuak... Untzaga.

BIDEZKO MERKATARITZA

10:00/14:30 Bidezko Merkataritzaren Munduko Eguna: tailerrak, produktuen salmenta, zozketak... Untzaga.

GALIZIAKO JAIK

11:30 Neska-mutilentzat (8-12 urte) "chaves" jaurtiketa.

12:00 Herri-kirolak, H2O-ren eskutik.

13:00 Igel-toka txapelketa, umeentzat (doan) eta helduentzat (euro bat).

16:00 Helduentzat "chaves" jaurtiketa (bi euro).

18:30 Dantza eta musika erakustaldia, Os Galaicos, Aire Andaluz eta Txindurri taldeekin.

21:00/(22:00) Musika, Euskelga taldearekin.

22:30/00:30 Dantzaldia, Salsarena taldearekin. Queimada.

01:00/02:00 Dantzaldia, Salsarena taldearekin. Urkizuko parkea.

KONTZERTUA

23:30 Miguel Azkune.
00:00 Julen Lujan, Txima eta Santos. Katu Kale.

DOMEKA 14

GALIZIAKO JAIK

11:45 Kalejira, Os Galaicos taldearekin eta Eibarko Trikitilariak. Untzagatik Urkizura. Dantza eta musika, Kezka, Duguna, Eibarko Trikitilariak eta Os Galaicos taldeekin.

14:00 Lore-eskaintza, Castelaoren monumentuan.

16:30/18:30 Mahai-jokoak, Odisea elkartearen eskutik.

18:30/19:30 Kontzertua, Eibarko Musika Bandaren eskutik.

22:00 Jaien amaiera eta taberna ixtea. Urkizuko parkea.

ASTELEHENA 15

SAN ISIDRO

11:00 Meza, bertsolariekin eta Oier Baltzola eta Unai Andonegi trikitilariarekin. Prozesioa eta aurruskua, Kezka dantza taldearen eskutik. Debabarreneko produktuen dastaketa.

12:30 San Isidro XIX. Aizkolari Txapelketa eta harrijasotzaileen saioa.

14:30 Bazkaria Tiro Pitxoi jatetxean. Bertsolariak eta trikitilariak.

17:30 Idi-demak: Oliden, Soarte eta Kamiñoko. Arrate.

BIDEO-FORUMA

18:00 Emakumeak historia egiten: Rocío Jurado. Dinamizatzailea: Patricia Perex. Sarrera librea. Andretxea (Isasi, 11).

MARTITZENA 16

BERRIKETAN IKASI

10:30 "Aitona-amonon egitekoa gaur" tertulia. Sarrera librea. Portalea.

EGUAZTENA 17

HITZALDIA

18:30 Hizkuntza eskubideak, denon auzia", Agurne Gaubeka Hizkuntza Eskubideen Behatokiko zuzendariaren eskutik. Doan. Errebal Plaza.

EZTABAIDA

19:00 "Taldea politikoen proposamenak Eibarko Ekialderako". Errebal Plaza.

DANBORRADA

19:00 Umeen entsegua.
20:00 Helduen entsegua. Beistegi eraikina (Bittor Sarasketa).

EGUENA 18

HITZALDIA

10:00/12:00 "Oskar Kokoscha. Vienako margolari expresionista", Ricardo Aldamaren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola.

ERAKUSKETA

19:00 Tailerretik bulegora. Eibarko produktua "erakusketaren inaugurazioa. A rmagintzaren Museoa.

KONTZERTUA

20:00 Aitor Hurgoren "Barruko Paisaiak" diskoaren aurkezpen kontzertua. Kultu taberna.

ERAKUSKETAK

Maiatzaren 28ra arte

ARGAZKILARITZA

MAIATZEAN:

- ENRIC DE SANTOS, NATXO ZENBORAIN, ROBER ASTORGANO, AITOR ARANA

(Portalea)

- OSKAR BAGLIETTO

(Topaleku)

- Eibarko Klub Deportiboko

ARGAZKI TALDEA

(Portalea taberna)

- ARGIZAIOLA 2022

(Portalea taberna)

- XL: NAZIOARTEKO

GIPUZKOA SARIA

(Untzagako jubilatue txetx)

Maiatzaren 18tik

irailaren 1era

"TAILERRETIK BULEGORA.

EIBARKO PRODUKTUAK".

(Armagintzaren Museoa)

Eskualdeko Agenda

ERMUA

12an (BARIXAKUA)

KONTZERTUAK

20:30 / Ermua Antzokia

Julen

22:00 / Orbe Kardinala

Vertigo Rock

13an (ZAPATUA)

KONTZERTUAK

15:50 / Betiondo

Vertigo Rock

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **13an:** 19:45, 22:30
- **14an:** 20:00
- **15ean:** 19:30

“La quietud en la tormenta”
DRAMATIKOA



2022/EAE/97'
Zuzendaria: Alberto Gastesi
Aktoreak: Loreto Mauleon,
Aitor Beltran, Vera Milan
Amodioa/Iraganera bidaia

2 ARETOA

- **13an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **14an:** 17:00, 20:00
- **15ean:** 19:30

“Fatum”
DRAMATIKOA



2023/Espainia/91'
Zuzendaria: Juan Galiñanes
Aktoreak: Luis Tosar,
Alex Garcia, Elena Anaya
Thriller-a/Lapurketak

ANTZOKIA

- **13an:** 17:00 (1), 19:45, 22:30
- **14an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **15ean:** 19:30

“Asedio”
DRAMATIKOA




2023/Espainia/99'
Zuzendaria: Miguel Angel Vivas
Aktoreak: Natalia de Molina,
Bella Agossou, Francisco Reyes
Thriller-a/Gertatutakoa

ANTZOKIA

- **13an:** 17:00
- **14an:** 17:00

“Mavka, basoko zaindaria”
ANIMAZIOZKOA



2023/Ukraina/90'
Zuzendaria: Alexandra Ruban
**Fantastikoa/Abenturak/
Erromantzea**

Garatutako negozio-plana daukazu,
baina zehaztu beharreko kontu espezifikoak dituzu?

EHUNDU
EKINTZAILITZA PROGRAMA
DA ZURE AUKERA!

EMAN IZENA!

Debegesa

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da ...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ANDER**, txapeldun! Zelako 8 urte poltit bete dozuzen! Besarkada bat zure anaixa Danel eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MARA**, domekan 10 urte beteko dozuz-eta. Ondo-ondo pasa!! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MALEN** Irastorza, hillaren 15ian 3 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **NILLE!!** Astelehenian 5 urte beteko dozuz-eta. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **JULE!!** Atzo 7 urte egin zenduaz-eta. Patxo haundi bat, txapeldun! Etxekuen partez.



CAROL, gure etxeko erregiñak 8 urte egin zittuan hillaren 6xan. Milla musu famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **EÑAUT**, gure futbolari!! Edarto pasau genduan atzo zure eguna ospatzen! 12 patxo erraldoi famelixakuen partez.



Zorionak, **JON!** Bixar 5 urte beteko dozuz-eta! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **LIBE!** Gaur 8 urte bete dozuz-eta. Gozatu egunaz famelixa eta lagunekin! Musu erraldoi bat etxeko danon partez.



Zorionak **IRATITXO!** Zapatuan, zure jaunartze-egunian 9 urte beteko dozuz-eta! Patxo haundi bat aitaxo, amatxo eta, batez be, zure ahizpa Naiaren partez.



Zorionak, **MIREN**, bixar 25 urte beteko dozuz-eta. Mende laurdena ederto pasatzia opa detsugu etxekuek! Besarkada haundi bat!



Zorionak, **AITOR!!!** Domekan 5 urte beteko dozuz-eta. Besarkada haundi haundi bat famelixa guztiaren partez. Askok maite zaittugu!

ERRENTA AITORPENATZ AURTEN ERE, DUDA BARRIK, EUSKARAZI

LEHIAKETA! IRABAZI SARIAK

Lotu definizioak kontzeptuekin eta bidali emaitzak elbarrenekebal@gmail.com-era. Osatzen dutenen artean Coliseorako eta museorako sarrerak zozketatuko dira. Epea: maiatzaren 15a.

ERBARRIN BAIETZ AURTEN 1.700€

- 1 Ordainkizunetan kentzen den kopurua.
- 2 Sozietate anonimoetan, mozkinetatik akzioedunei banatzen zaien zatia.
- 3 Zerbait edo norbait aipatzen den lege, arau edo multzotik at utzi edo uzten dela adierazi.
- 4 Zergak ordaintzea dagokion pertsona.
- 5 Ordainketa batetik, eta, bereziki, soldata batetik, zerga gisa kentzen den zenbatekoa.
- 6 Norbaiti zerbait, batez ere dirua, zor dion pertsona.
- 7 Norbaitek une jakin batean dituen ondasunen multzoa.
- 8 Norbaiti, borondatez eta ordainetan saririk hartu gabe, zerbait ematea; horrela ematen den gauza.

- Atxikipen
- Dibidendu
- Kenkari
- Ondare
- Zergadun
- Zordun
- Salbuetsi
- Dohaintza

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisua salgai Txaltxa Zelai kalean. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 5. pisua, igogailuarekin. 677592475. Joseba.
- Pisua salgai Zuloagatarren kalean. 7. solairua. Fatxada eta teilatua berriztu berriak. 235.000 euro. 660378181.

1.2. Errentan

- Matrimonioak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Erreferentzietan. 667060292.
- Etxebizitza alokagai Deban uda eta udaberri sasoiari (hila-beteka edo asteka). 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igogailua 0 kotatik. 657795876 (arratsaldez).

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta sukaldari-laguntzaile bezala. 617630178.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 691632453.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 665508721.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. 632415374.
- Kanpoko etxe-zerbitzuan esperientzia duen neska donostiarra Eibarko etxeetan lan egiteko eskaintzen da. Euskal sukaldaritzan tradizionala eta osasuneko. Mendekotasun-egoeran daudenei laguntzeko teknikari titulua. 699473761. anaulia71@gmail.com

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita aste-buruetan ere. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita aste-buruetan ere. 640881328.
- Neska eskaintzen da nagusiak (habilitazio-ziurtagiria) edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarak egiteko. 605363057.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin, eta baita ospitalean ere) eta garbiketarak egiteko. Erreferentziak. 667060292.

4.2. Langile bila

- Zerbitzaria behar da Eibarko Guridi tabernan. Euskaraz egin eta esperientzia duena. 634277015.
- Fisioterapeuta (edo osasun arlokoa) behar da Eibarko klinika baterako. Curriculumak bidali: urreibar@hotmail.com
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699024156.
- Elgoibarko baserri baten edadetua zaintzeko pertsona behar da. Kurso sozio-sanitariarioa eginda eta paperekin. Interna. 653723095.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatearen prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKO
DUE ENDA ANDOHARRIETA, 4001 E.

"MECANINORen bizitako esperientzia oso positiboa izan da. Enpresa interesgarria da eta lankideekin harremana oso ondo egon da"



**Errikarta Gonzalez
(Berango)**

Fabrikazio Mekanikoko
Programazioaren Produktzioa
Goi Mailako Heziketa Zikloa
(GMHZ)

Nola erabaki zenuen ziklo hau egitea?

Ziklo hau aukeratu nuen, lan iraberragatik, momentu horietan ziklo dibulsiatze dute. Gainera, bete gurtatu izan zait fabrikazioa eta gauzak zehaztasunarekin egitea.

Zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (MGEP)?

MGEP aukeratu nuen, onpe ona duelako, zikloan erabiltzen den metodologia, irakazlegoa... baina ere praktikak egiteko erabiltzen diren industri- instalazioengatik. Bi urte hauetan, lankideekin izan dudun harremana oso ona izan da. Ingegnario herri desberdinetakoak elkartu gara, Amasate, Oñati, Elorrio, Zumarraga... oso esperientzia ona izan da urte hauek berarekin partekatzea.

#LanerakoGertu

ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, ekipolanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Nola moldatu zarete?

Hainbat erronka landu ditugu bi kurso hauetan. Interesgarria izan da, batez ere, aukotan harikot ikasgai batzen dituzelako jardura komun batean, eta horiek ikasgaiak hobeto ulertzeko eta zintarako erabileren diren jakitzeko laguntzen du.

Deigarria iruditu zitzaizkidan lehenengo mailako adier erronka: 20 pieza bordin fabrikatu behar ziren, eta gero konprobatu behar genuen pieza guztiak eskatzen zitiguteren esleiztatik batetzeren situatuta, honekako lan batek estatistika jakitea eskatzen du, pieza arteturto behar dira zuztateko ez dagoela akatsik, hondakin handia sortzen denez, nola ludeatu erregistratit aberatzea, nola izan behar den kontzuan lalimelan makinak jartzean jeta izan ohi den protzesua, ez lalako oso urrutu makina bat besteak...

DUALA MECANICORren egin duzu, nolakoa izan da esperientzia?

MECANICORren bizitako esperientzia oso positiboa izan da. Enpresa interesgarria da eta lankideekin harremana oso ondo egon da, oso giro ona dago lanean. DUALan gauza asko ikasi ditut: fabrikazio- enpresa baten funtzionamendua, CNC kontrolak ludeatzen, pieza desberdinetarako erremintak jartzen, makinaren mantentze lanak, eta abar, %100ean gonderatzen dut DUALa egitea. Gainera, DUALa bukako ondoren, bertan lanean jarraitzeko aukera eman didate eta hori egiteko dut. Lanean nagoen bitartean, diariako zikloa online egiteko aukera ere berragutzen naitik.

Bete du zikloak hasieran espero zenuena?

Esai, gurtz. Hasieran espero nuen bete du eta gainera hobeto egin du. Hiri kaxan MECANICORren egiten dudun lana dibertigarria iruditzen zait, ez da bakarrik lana egitea, hausnarketa eta antolatzea ere eskatzen du. Horri monotonoa edo errepikariora ez liratea eragiten du. Ziklo honek aukera profesional asko ditu eta MGEPek dituen ekipamendu eta metodologiarekin ikasketak prestakuntza onarekin analizea lortzen duzu.

Axola zaizun informazioa inoiz baino gertuago



etakitto.eus



Kia-ren SUV gama.

Baldintza bereziak maiatzaren 22ra arte.



Movement that inspires

KIA
NAIA CAR

📍 Apalategi, 1 EIBAR

☎ 943 70 70 33 📞

www.kia.com

LTP CO2 isuri konbinatuak (g/km): 18-162. WLTP kontsumo konbinatu haztatua (l/100 km): 0,8-7,4. Kontsultatu promozioaren baldintzak eta betekizunak www.kia.com webgunean. Eskaintza honek Perintulako, Balearretako, Ceutako, Melillako eta Andorrako Kia kontresionarioen sarsan balio du. * Kontsultatu Kia berme-eskubiturua.

